




Euskal Herri osoko 733 muskari datoz

Andoaingo Piano Jaialdia, asteburu honetan / 2-3

Aurrekontuari baiezkoa emateko plenoa

Andoaingo hilabete honetako batzarraldian beste bi aztergai nabarmendu behar dira: Hileta zibilen araudia eta harrera ekitaldiak deitoratzeko PSE-EEren mozioa / 9



Andoaingo Txirrindulari Eskolak denboraldi berria abiatzeko aurkezpen ekitaldia egin du / 11

Dejabu konpainia arrakastatsuen "Linbo planeta" haur antzerkia, igande honetan Saroben / 16

Parte hartze prozesuaren datuak eskaini ditu Udalak; laster herri bilera deituko dute / 6



Ipar martxa eta kros lasterketa Urnietan, Salesiar ikastetxean bertan hasi eta amaitu zena / 10

Ongi etorriak bisitariak Andoainera gozatu gure herriaz, merkataritzaz eta ostalaritzaz

Andoaingo Piano Jaialdia 2018 Otsailak 24 eta 25 Bastero

ANDOAINGO UDALA

bastero KULTURGUNEA ANDOAIN



2015eko jaialdiko amaierako ekitaldia, Basteroko auditorioan. AIURRI

Pianoa ardatz duen jaialdia

Zapiz beteko da Andoain asteburuan, Piano Jaialdiaren bereizgarri den arrosa koloredun zapiz. Udalaren lankidetzarekin, beste behin ere Deiarar elkarteko Castro, Ulanga eta Aiertza hirukoteak lan eskerga egin du

Amaia Senperena ANDOAIN
Asteburuan, Andoaingo Piano Jaialdiak bere 13. edizioa ospatuko da, eta aurten antolatzaileak bi berrikuntzekin datoz. Jaialdiaren atarian, ostiral honetan, Txitxu Castrok eta Myriam

Ulangak Andoaingo piano irakasle guztiakin entsegu orokorra egingo dute. Hitzordua ekitaldi aretoan izango da, arratsaldeko 18:00tan hasita. Eta bertara piano-jotzaileen senitartekoak gonbidatu dituzte.

Bigarren berrikuntza, taldekako jarduerari dagokio. Myriam Ulangak iragarri zuenez, "iaz ez zen sei eskuetara parte hartzeko aukerarik egon, baina edizio honetan maila eta modalitate guztietan izango ditugu

partaideak". Aurtengoan, beraz, bakarlari moduan aritzeaz gain, lau eskuetara eta sei eskuetara pianoa jotzeko aukera izango da. Esti Mujika udal zinegotziak musikak haur eta nerabeentzat ikasketa prozesu moduan duen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen. Horrelako jaialdi bat antolatzea izugarritzko apustua izanik, lan gogorra eginez me-rezi duen proiektua bihurtu dutela aitortu zien musika eskolako irakasleei.

BOULANGER ETA DEBUSSY MUSIKARIEN MENDEURRENA

Musikari erreparatuta, 2018an bi konposatzaile ezagunen mendurrena ospatzen da. Zehazki, Lili Boulanger eta Claude Debussy musikariarenak. Biei jaialdiaren amaierako kontzertuan aipamena egingo zaie. Baina ez hori bakarrik, Debussy-

ren obraren interpretazio onena egiten duen parte hartzaileari sari berezia emango baitiote.

ANTOLATZAILEEN ESKERTZA

Aurkezpenaren amaieran, Ainhoa Aiertza antolatzaileen bozeramaileak eskerrak eman nahi izan zizkien Andoaingo Udalarari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta bereziki piano jaialdiaren inguruan laguntzen diharduten dozenaka gazte eta familiei.

Jaialdia herritar orori zabalik dago, emanaldi guztiak irekiak baitira. Eta doakoak.

OSTIRAL HONETAN, ANDOAINGO PARTAIDEEK ATARIKO SAIOA ESKAINIKO DUTE BASTERON

OTSAILAREN 24 ETA 25ean PIANO JAIALDIA

GERA ZAITEZ ANDOAINEN BERTAN

TXANPINOI PINTXOA 1,00€

- AMAMAKLAUDIA - PLAZA ZUMEA, Nº 5
- ZERU TABERNA - ZUMEA, Nº 6
- TXITIBAR TABERNA - ZUMEA, Nº 7
- BAR MUGA - ZUMEA PLAZA
- BAR DANENA - ZUMEA, Nº 22

- BAR AKER BELTZ - NAFARROA PLAZA, Nº 1
- HIRU JATETXEA - JUAN BAUTISTA ERRO, Nº 4
- ONDARRETA TABERNA - ONDARRETA, Nº 9
- BAR ATERPEA - GOIKO PLAZA, Nº 7
- ELIZONDO TABERNA - AVDA. LA SALLE, Nº 1
- BAR OLLOKI - GOIKO PLAZA, 6-7



Piano Jaildiko iazko irudia. AIURRI

Euskal Herri osoko 733 musikari Andoainen

Euskal Herri osoko piano-jotzaileak hurbilduko dira asteburu honetan Andoainera. Zehazki, 733 musikari Arabatik, Bizkaitik, Nafarroatik, Iparraldetik eta Gipuzkoa osotik etorritakoak. Jaialdiak duen dimentsioaren datu argigarria da hori

Erredakzioa ANDOAIN

Ehunka izango dira jaialdi honetan parte hartuko duten haur eta gazteak. 626 Gipuzkoatik, 72 Bizkaitik, 31 Nafarroatik, 2 Arabatik eta 2 Iparraldetik. Horietatik, 233 musikaririk lehen aldiz hartuko dute parte jaialdian. Urteak aurrera joan ahala, partaidetza biziberritu egiten baita. Batzuk badoaz, helduarora iritsi

direlako. Baina badatoz partaide berriak, taulagainera igotzeko zirrara berezi hori sentitze-ko gogoz daudenak.

Piano Jaialdia beharrezkoa da, parte hartze datuak ikusita

Esti Mujika zinegotziak aurkezpenean aipatu zuen moduan partaidetza handi horrek bere baitan erakusten du horrelako

jaialdia egitearen beharra: "Aurtengo edizioan 733 partaide ditugu, bazegoen horrelako ekimen bat egiteko nahia eta beharra".

Kontzertuak Bastero kultur-guneko bi areto ezberdinetan emango dira; ekitaldi aretoan eta kultur-guneko auditorioan. Auditorioan, gainera, 29 saio ezberdinez gain, zazpi sari banaketa ekitaldi eta amaierako

kontzertua antolatuko dituzte. Ainhoa Aiertzak aurkezpenean aipatu duen moduan "Urtero obra berriak txertatzen ari gara gure erreperitorea eta kontzertuetan estilo eta garai ezberdinetako 566 obra ezberdin entzuteko aukera izango da".

Saio irekiak, eta doakoak

Piano Jaialdia ezagutu nahi duen herrikideak atek zabalik aurkituko ditu. Emanaldi guztiak irekiak dira, eta doakoak. Musikarrien senideez gain, beraz, edonork ikus ditzake emanaldiak.

"566 OBRA EZBERDIN ENTZUTEKO AUKERA IZANGO DA AURTENGO PIANO JAIALDIAN"

AINHOA AIERTZA, ANTOLATZAILEA



Udal Musika Eskolako Banda

Jaialdiarekin bat eginez eta kalea musikaz girotzeko, Andoaingo Udal Musika Eskolako Bandak kalejira egingo du igande eguerdian; Goikoplazatik eguerdiko 12:00etan abiatuko da eta Zumea plazara iritsiko da. Ibilbidean zehar baltsak, kalejirak, Mexikoko korridoak, pasodobleak eta Abba eta The Beatles taldeen piezak joko dituzte, besteak beste.

Jaialdiko hainbat datu adierazgarri

Hauxe izango da parte hartzea, adinkra eta jarduera ezberdinetan:

Bakarlarriak:

- 550 partaide denera
- 279, 11 urte artekoak.
- 217, 14 urte bitartekoak.
- 54, 18 urte bitartekoak.

Lau eskutara:

- 142 partaide denera
- 62, 11 urte artekoak.
- 56, 14 urte bitartekoak.
- 24, 18 urte bitartekoak.

Sei eskutara:

- 30 partaide denera
- 6, 11 urte artekoak.
- 12, 14 urte bitartekoak.
- 12, 18 urte bitartekoak.

Debussy sari berezia:

- 11 partaide denera
- 6, 11 urte artekoak.
- 3, 14 urte bitartekoak.
- 2, 18 urte bitartekoak

Jatorriaren arabera, Euskal Herria osoa ordezkatuta egongo da:

Partaideak:

- 733 partaide denera
- Gipuzkoa 626 partaide.
- Bizkaia 72 partaide.
- Nafarroa 31 partaide.
- Araba 2 partaide.
- Iparraldea 2 partaide.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

JULEN LORENZO RIVAS IPAR HAIZEA PLATAFORMA

Larunbatean denok Donostiara

Dagoeneko jakin badakigu %80ko birziklatze tasa lortzea posible dela, horretarako bitartekoak jarri eta borondatea izanez gero. Modu honetan zabor nahasi ugari sortzea ekidin genezake, geratuko litzatekeen apurrarekin errausketa ez den beste irtenbide bat bilatzea posible izango genukeelarik. Gure eskaera berresten dugu: Zubietako erraustegiaren obren geldialdia eskatzen dugu eta gauzatu dezatela lehenbailehen Gipuzkoa osoan hondakin bilketa eraginkorra, tokian tokiko berezitasunetara moldatua. Denbora laburrean lortu daiteke %80a Gipuzkoa osoan.

Ormaiztegin, adibidez, urtarrilean %89 birziklatu zuten, eta Gipuzkoako udalerrien erdietan baino gehiagotan, tamaina ezberdinetakoak, %70 baino gehiago birziklatzen dute. Mankomunitateen artean, Sasietan %77 birziklatu zuten urtarrilean eta Debagoienan %78,61a 2017an.

Andoainen pausoak ematea ezinbestekoa da, 2017an %42,33 soilik birziklatu baikenuen, eta 2.671.840 kg bidali genituen zabortegira. Arrasate eta Bergaran, aldiz, zabortegira 1.896.419,73 kg eta 1.106.505,37 kg bidali zituzten hurrenez hurren. Atera kontuak. Erraustegia ez da beharrezkoa, alternatibak badaude, gainera merkeagoak, osasunari kalterik egiten ez diotenak eta ekologikoagoak.

Otsailaren 24an, larunbata, 17:30tan Donostiako Gipuzkoa Plazan ozen aldarrikatuko dugu hemen aipatutakoa,

ZUBIETAKO OBREN GELDIALDIA ESKATZEN DUGU; GAUZA DEZATELA BILKETA ERAGINKORRA

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak antolatutako manifestazioan.

Manifestazioko puntu garrantzitsu bat herritarrak izango dira, hondakinak ondo bereizi eta eginbeharrak txukun gauzatzen dituzten horiei ahotsa eman nahi diegu, ondo egiten dutenak eredu

dira eta nagikerian ezkututzen direnei deiarar egin nahi diegu. Bide batez aipatu nahiko genuke Europako Parlamentuak urtarrilaren 17an erabaki zuela erraustegiei ematen zaizkien dirulaguntza oro ezabatzea, erraustegien finantzaketa iturri nagusia kolpatuz modu honetan. Animatu eta zatoz zu ere larunbatean Donostiara! Erraustegia gelditu, birziklapena sustatu! Erraustegiarentzako alternatibak badaude!

POSTONTZIA

Aberri egunerako deialdi bateratua

INDEPENDENTISTAK SAREA

2018ko Aberri Eguna, apirilaren 1ean Iruñean ospatzeko deia egiten die Independentistak Sareak euskal herritarrei. Ohiko moduan, aldarrikapena eta ospakizuna uztartuz, egun osoko egitaraua izango da: eguerdian manifestazioa eta ekitaldi politikoa egingo dira eta, ondoren, ospakizunak Iruñeako kaleetan zehar.

Aldi berean, euskal komunitatea dagoen munduko tokietan ere Aberri Eguneako ospakizunak bultzatuko ditu Sareak, munduko herrialde desberdinetako sarekideen bitartez.

Berriro ere, apirilaren 1ean, Euskal Herriak munduko herri guztien artean bere tokia izan behar duela

aldarrikatuko dugu. Inolako kanpo inposaketa eta injerentziarik gabe, geure etorkizuna askatasunean, demokrazian, justizia sozialean eraiki nahi dugula, eta horretarako burujabetza osoa behar dugula adieraziko diogu mundu osoari Aberri Egunean.

Bagenekien lehendik ere espainiar eta frantziar Estatuaren egituren barruan ez dugula inolako burujabetza aukerarik. Orain, Espainia eta Frantziako inboluzio politikoak eta 78ko espainiar erregimenak Kataluniako prozesuaren aurrean agertu duen ultranazionalismo bortitz eta ukatzaileak inoiz baino garbiago erakutsi digu errealitate gordina.

Menpekotasunean ez dugu etorkizunik. Burujabetza

berreskuratzeko bideak sakon aztertu, urratsak zehaztu eta ibiltzen hasteko ordua da. Norabidea argi dago: Euskal Estatu sozial eta demokratikoa eratu eta Euskal Errepublika aldarrikatu. Helburua, askatasuna, hots, herritar guztiok zorionsu bizitzeko herri librea.

Sigla eta familia politikoetatik harago, guztiok batera zabalduko dugu askatasunaren oihua mundu osora. Apirilaren 1eko eronkari elkarlanean aurre egiteko deia luzatzen diegu independentista guztiei. Sarekideen eta herritar ugariaren laguntzari esker lortuko dugu garai politiko hauek eskatzen duten Aberri Egun jendetsu eta esanguratsua.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus



Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak: Garbiñe Ugartemendia. izakaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Legu Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ
 ALJATUAK: ALJATUAK
 TOKIKOM
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:
 ANDOAINO UDALA
 Urnietako Udala
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:
 EUSKO INJURIAK
 GOBIERNO VASCO
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Huelmas
 Berlinguasmerako Zuzendaritza
 ZIURTAGIRIA:
 Bitkarn
 BABESLEAK:
 Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

PROTAGONISTA

“Etxean beti dago aldatu beharreko txokoren bat”

MARISA ITURBE CARDONA NEI ETA ITURBE ALTZARIAK URNIETAN

Amaia Senperena URNIETA

Igandera bitarte, Urnietako Nei eta Iturbe altzarietan beharpen handiak izango dira. Larunbatean, goizez eta arratsalde zabalik izango dituzte ateak. Eta baita igande goizean ere. Marisa Iturbek kanpainaren xehetasunak eskaini ditu.

Zer dela eta azoka bat antolatzea?

Urtero izaten dira likidatu beharreko erakusleioak, produktu berriei lekua egin diezaiegun.

Sukalde edo logela osoa berritzeko intentzioarekin doanak, bilatzen duen horrekin buelta daiteke etxera?

Bai. Aurten bi sukalde, sala bat, logela arrunta eta haurrentzako bi logela ditugu likidazioan. Aukera ona da hori bilatzen duenarentzat. **Espazio osoez gain, altzariak atalka eros daitezke ezta?** Bai, normaen deskontu garrantzitsuenak espazio osoetan egiten dira. Baina horiez gain, altzari osagarri,



Jon, Nuria eta Sergio, bertako hiru langile. AIURRI

apalategi, mahai, loreontzi eta horrelakoetan ere deskontu oso onak izaten dira. Gainera, merkealdi horiez gain, azokak iraun bitartean, gure bi dendetako produktu guztietan %15eko deskontua

eskaintzen dugu. Beraz, denean dago merkeago. **Zein da zuen azoketara gerturatzeko den jendearen profila?** Andoain, Hernani eta Urnietako jende asko

gerturatzeko da. Donostia, Lasarte-Oria eta Usurbil aldeko jendea ere etorri izan da azokara. Adin tarte ezberdinetako jendea gerturatzeko da, beharra duen edonor azken finean.

Moda ikuspegi batetik altzari batek epe muga bat duela esango al zenuke?

Modarekin koloreak, telak, testurak pixka bat aldatuz doaz, baina altzaria ez doa arroparen abiadura berean. Normalean gehiago izaten da beharra, moda baino. Normalean etxean beti egoten delako aldatu beharreko txokoren bat: haurren gela, altzariren bat, koltxo edo osagarriren bat...

Non dago, zuen kasuan, arakastaren gakoa?

Aurten 54 urte egingo ditugu sukaldeak egiten hasi ginenetik, eta jendeak gehienbat horregatik ezagutzen gaitu. Urtean zehar izaten ditugun bezeroen ehuneko handiena sukaldeen inguruko gauzen bila etorri ohi da.

Zer esango zenioke jendeari, zuen azokara gertura dadin?

Urnietako Igarategi industrigunean gaude. Buelta bat egitera etor daitezela. Gauza politikak, interesgarriak ditugu. Anima daitezela, ongietorriak dira denak.

HAU ERE BADUGU!

Igerilarietako poza sarean



Aiurrin kirol aniztasunari bidea ematen saiatzen gara. Joan zen asteburuan Gipuzkoako Igeriketa Federazioak Buruntzaldea IKT taldeko Eneko Elizasu eta Nora Imaz lan saio berezira deitu zituztela argitaratu genuen. Askotxo izan dira Facebook sarean igerilariak, kluba eta baita igerilarien gurasoak zoriontzeko irakurleek idatzitako mezuak.

Azken agurra irakasleari



Erdaldun komunitateak ere Aiurri irakurtzen du. Barandiaranen heriotzaren harira, Maria Rosa Cano Rodriguezek mezu ederra idatzi zuen, gaztelaniaz: "Milesker Juan Bautista jauna, zure ikasleengatik egindako guztiagatik. Abestu, dantzatu eta margotzeaz gain pertsona hobeak izaten irakatsi zenigulako. Miretsi zaitut, betidanik. Goian bego Juan Bautista".

Euri kontuek arrakasta handia izaten dute

Asteartean, goizaldeko 06:00tan Santa Krutz zubian grabatutako zazpi segunduko bideotxoak ehun bisitari pilatu zuen azkar batean. Eurria barra-barra egin du, eta horrelakoetan internet sarean dabilzan erabiltzaileak adi-adi egoten dira. Eguraldiarekiko informazio 'gose' hori asetzeko eskualdeko meteorologo adituek sarean mapaz eta aurreikuspenez betetzen dute.

BOLO-BOLO

Haur ikuskizunak

Joan zen asteburuan John Braun txotxongilo emanaldiak ez zuen jende askoren arreta bereganatu, baina Basterora hurbildu zirenak aho bete hortz geratu ziren begien aurrean izan zuten ikuskizunarekin. Kalitate handikoa, haurrak dibertitzeko eta hunkitzeko gaitasun handia erakutsi zuten. Asteburu honetan Saroben Dejabu konpainiak "Linbro planeta" aurkeztuko du. Konpainiak kalitatearen bermea dauka, egin izan dituen antzezlan guztiak arrakastatsu izan baitira. Ea ikusleko kopuru handia hurbiltzeko gai diren!

GORA ETA BEHERA



Andoain iraintzen duten txio sorta sare sozialetan

Igande arratsaldean Andoainen bi preso ohiegi egindako harrera ekitaldiak hedabide handien arreta bereganatu zuen. Ekitaldi mediatiko horren harira, sare sozialetan bateko eta besteko iritziak agertu ziren. Alde edo aurka egotea zilegi da. Batek baino gehiagok, ordea, harrera ekitaldia kritikatzeko hasi eta Andoain herria iraintzen bukatu zuen. Onartezina da.



'Parte hartuz' prozesuaren datuak

Udalak aurrean egin nahi dituen inbertsio guztien artean, partida bat herritarrekin batera erabakitzeke asmoa iragarri zuen. Urte hasieran jarritako parte hartze prozesua amaitu da, eta Udalak orain jasotako galdetegiak aztertzeari ekingo diola



Otsailko lehen asteburuan, Urnietako Udalak parte hartze prozesua sustatzeko informazio karpa ipini zuen. UDALA

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak dagoeneko jaso ditu urnietarren proposamenak, aurtengo Udal aurrekontuko 125.000 euro zertan gasta daitezkeen erabakitzeke. Urteko lehen asteetan egin da parte hartze ariketa, horretarako modu eta baliabide ezberdinak eskainiz. Ekimenean Urnietan erroldaturiko 16 urtetik gorako pertsonak parte hartu zezaketen. Udalak parte hartzearekin pozik dago, aurreko urteko datuekin alderatuta kopurua zertxobait jaitsi bada ere.

157 galdetegi jaso dituzte denera

- 157 galdetegi jaso dira parte hartze prozesuan. Horietatik "142 galdetegi eman dira ontzat. Onartu ez direnak informazio faltagatik, galdetegiak behar bezala ez betetzeagatik edo egilea ez identifikatzeagatik baztertu dira".
- Parte hartzeko modu ugari erabili dira: 54 herrian zehar ipinitako buzoi eta kutxatan, 40 Urnietako APP eskuko telefonoko aplikazioaren bitartez, 37 otsailaren 2an eta 3an ipini ziren informazio karpak jasotakoak eta 26 urnietako.eus webgunearen bidez.
- Udal teknikariek proposamen guztiak aztertu eta erabakiak hartuko dituzte. Erabaki horien berri emateko bilera irekia deituko dute.



Berdinbidean egitasmoaren aurkezpen ekitaldia, Foru Aldundian. UDALA

Indarkeriaren biktime direnen arreta hobetzeko protokoloa

Erredakzioa URNIETA

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktime direnentzat arreta hobetzeko protokoloa lantzen ari da Urnietako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Zehazki, Berdinbidean izeneko programaren baitan. Helburua hamar mila biztanlelik beheragoko herriei berdintasun politikak garatzeko eta

indartzeko laguntza ematea da, beraien errealitatera moldatuz eta plangintza landuak garatuz.

Itziar Olazabal Gizarte Zerbitzuetako arduradunak azaldu zuenez, "berdintasuna denon artean jorratu beharreko gaia da, denon inplikazioarekin". Hori horrela, Gizarte Zerbitzuen eta udaltzaingoaren elkarlana funtsezkotzat jo du.

LED teknologiadun farolak Langardan



4 farola jarri dituzte. UDALA

Ur hoditeria berria Azkorteran bidean

Lanak iraun bitartean behin-behineko ur mozketak egiten ari dira. Errepidean ere tarteka mozketak egingo dituzte, nahiz eta ez duten errepidea erabat itxiko. Azkorte hermitara doan bidean, Haritzleku etxearen partetik hasi eta Elorriaga baserri-ira doan bidegurutzeraino, lanak beste astebetetz luzatuko direla aurreikusitako dute.



TXOTX'18

Aiurriko harpidedun izatearen abantailak

Sagardo route

943 336 811
Astigarraga

Mizpiradi

943 593 954
Andoain

Sarasola

943 690 283
Asteasu

Iguarte

658 435 160
Usurbil

Larre-gain

943 555 846
Ereñozu-Hernani

Gaztañaga

943 591 968
Andoain

R. Zabala

943 690 774
Aduna

Petritegi

943 457 188
Astigarraga

Hotel K10

943 337 357
Urnietako

Harpidedun egin zaitez eta etxean jasoko duzu:
943 300 732 idadkaritza@aiurri.eus



Combi proiektuan parte hartu duten sei ikasleak, diploma eskuetan dutela. AIURRI

Euskara, zaintza arloan indartzen

Hiru urtetako proiektua da Combi, eta zaintza arloan lan egiten dutenei euskara erakustea du helburu. Praktika errealean oinarritutako ikastaroa da, eta bertan adinduekin izango dituzten zenbait egoera antzeztu dituzte, euskara praktikatu

Olatz Lasa URNIETA

Zaintza arloan lan egiten dutenei hizkuntza gutxitua erakusteko metodologiak garatzea da Combi proiektuaren helburua. Sei emakumek hartu dute parte, eta praktika errealean oinarri-

tuz, lanerako behar duten euskararen gutxieneko ezagutza jaso dute bi astetan, orotara hogeit hamar ordu. Sari gisa diploma bana jaso zuten Maripi Sarasola Urnietako Euskara zinegotziaren eskutik.

Petra Elser, Banaiz Bagara Elkarteko kidea izan dute euskara irakasle, eta azaldu duenez, "lehen aldiz etortzen direnean euskara ez dakitela esaten dute, baina kasu gehienetan beti dakite hitzen bat edo beste".

Ikasleen garapena ikastaroan zehar

Combi proiektuko teknikaria den Ana Labakak ikasleek eduki duten eboluzioa aztertu du. Ikastaroaren lehen egunean praktika erreal bat egiten jarri zuten, eta zuten maila idatzi zuten orrialde batean. Azken egunean, praktika berdina errepikatuarazi zien eta izan duten eboluzioa aztertu ahal izan du. "Gramatika eraskusteaz harago doan proiektua da. Beste zenbait alderdi ere lantzen ditugu, hala nola, soziologikoa, sozio-linguistikoa edota zaintzari lotutakoak", azaldu du Combi proiektuko teknikariak. Eboluzioa oso handia izan dela adierazi dute bai Labakak eta bai Elserrek.

Euskara mailaz gain, adineko pertsonengana hurbiltzeko duten gertutasuna ere hartu dute aintzat Combi proiektuan; baita adindua animatzeko duten gaitasuna edota zenbateraino bultzatzen duten adinduen autonomia ere.

Ikastaroa proba pilotu gisa erabiliko da hizkuntza gutxitua duten Europako beste herrialde batzuetarako baliogarria izan dadin. Gainera, metodologia horretan oinarritutako gidaliburua prestatzen ari dira; eta aldi berean, Internet bidezko ikastaroak ere ematen dituzte.

Jatorri anitzeko ikasle taldea

Marlene, Liset, Lali, Angela, Mary eta Juani dira Combi proiektuan parte hartu duten

"GRAMATIKAZ HARAGO DOA, ALOR SOZIOLOGUSTIKOA ERE LANTZEN DA"

ANA LABAKA, COMBIKO IRAKASLEA

ikasleak. Kubatik, Nikaraguatik, Perutik, Nigeriatik eta Badajoztik etorri dira Urnietara nahiz inguruko herrietara bizitzera. Zaintza arloan egiten dute lan, batzuk zaharren egoitzetan eta beste batzuek etxez etxeko zaintzan. Euskara ikasteko beharra sentitu dute lanean, eta horregatik hartu dute parte Combi proiektuan. "Aiton-amonak oso pozik jarriko dira euskaraz entzuten nautenean", adierazi du irribarre batez Juanik.

Bi asteren ostean adinduekin elkarrizketa txikiak mantentzeko gai ikusten direla adierazi dute, eta pozik daude egin duten ahaleginagatik. "Hasieran euskaraz hitz egitea asko kostatzen da, baina pixkanaka zure buruarekiko konfidantza hartu, eta nahastuagatik ere jendeak euskaraz hitz egitera animatzen gaitu", azaldu du Lalik.

Lanerako bakarrik ez, bilobekin komunikatzeko ere euskara baliagarri zaiola azaldu du Juanik: "Orain nire bilobekin euskaraz hitz egingo dut".

Petra Elserri eskerrak eman nahi izan dizkie bi astez euskara erakustegatik, eta eurengan konfidantza jartzeagatik. Euskara ikasten jarraitzeko gozoz daudela ziurtatu dute.

Banaiz Bagararen ekimena Urnietaz harago doa. Duela bi aste Andoaingo San Juan Bataiatzailean egitasmo honi lotutako bideo grabaketak egin zituzten, aktore eta zuzendari profesionalen parte hartzearekin.

"AITON-AMONAK OSO POZIK JARRIKO DIRA EUSKARAZ ENTZUTEN NAUTENEAN"

JUANI, COMBIKO IKASLEA

%60

%50

%30

%40

%20

ALTZARIAREN

AZOKA URNIETAN.

OTSAILAK 17-25

Ordutegia:
LAN EGUNAK eta LARUNBATAK
9:30-13:00 / 16:00-19:30
IGANDEA 19 eta 25 9:30-13:00
IGARATEGI INDUSTRIALDEA 70
20130 URNIETA
www.mueblesiturbe.com

Muebles Altzariak

SUKALDEA ETA ETXEA (1942z geroztik)



1.saria: "Andoaingo guduaren egunerokoa". Iker Casado. Ainara Rodríguez Euskara zinegotziaren eskutik jaso zuen saria. AIURRI

Andoain laburrean lehiaketaren aurtengo saridunak

Erredakzioa ANDOAIN

Euskara lansailak 'Andoain laburrean' bideo lehiaketaren sarituen berri eman du. Sariak banatzearekin batera, hiru bideoak Udalak duen youtubeko kanalean ikusgai daude. Elkarren artean oso lan ezberdinak dira hirurak. Aritz Nuñez Barriola gazte hezitzailea da aurtengo bideo irabazlearen protagonista

nagusia. Arbasoen jatorria arakatzea gogoko du. Andoaingo Guduaren egunerokoa azaltzen du, izebaren etxean aurkitutako "Diario de guerra del General Uranga" liburua eskuartearen duela. Bigarren bideo saritua musika pieza bat da, zeinean bi neska diren protagonista. Hirugarrena akziozko pieza da, thriller modukoa.



2.saria: "Arantzarik gabe". Denis Leiza eta Olatz Perez. Joxefelipe Auzmendi esatari eta ekoizleak eman zien saria. AIURRI



3.saria: "Errautsak". Oier Hernandez, Carlos Blanco eta Egoitz Cobo. Joseba Sacristán kazetaria eta Gazteako esatariaren eskutik jaso zuten saria. AIURRI

Jabekuntza Eskolak egitarau oparoa dakar

Martxoaren 8ko ospakizunak iristear direnean, otsailean hasi eta ekainera bitarte luzatuko den Jabekuntza Eskola aurkeztu du Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak. Aurtengoak ere egitarau oparoa dakar

Olatz Lasa ANDOAIN

Emakumeak agerpena eta protagonismoa hartzea bizitza publikoan, horixe da helburuetakoa. Eskaintza oparoa da. Asteburuan hasita, 'Pausoz pauso' kalejira iragarriko duen bideoa grabatuko dute. Deialdia irekia da, eta ikastaro guztiak doakoak. Haren atzetik iritsiko da batukada feminista ikastaroa. Eta, Aste Santua igarota, ikastaro sorta zabala: Emoziotegia, teoria feminista, menopausia eta autoezagutza, sendabelarrak... Egun hauetan eskaintza osoa biltzen duen liburuxka etxe guztietara iritsiko da. Egitarau hori osatzera dator, azken orduan antolatu duten tailer berria. Martxoan hasita, eta astean behin, jatorri ezberdineko emakumeak bildu nahi dituzte elkar ezagutu eta migrazioaren bizipenak elkarbanatzeko.

Esti Mujikak aurtengo eskaintza zabala nabarmendu zuen: "Emakumeen profil ezberdine-



Esti Mujika zinegotzia eta Sandra Barrenetxea berdintasun teknikaria. AIURRI

tara iristen ahalegindu gara. Eskaintza anitza dugula uste dugu". Ahalduzko zergatia azaldu zuen, segidan: "Ahalduzko zergatia ari garenean, emakumeak gure izaeraren auto-kontzientziak ari gara, autoestimua lantzeaz,

gure gaitasun propioak ezagutzeaz eta emakumeoi dagokigun espazioa berreskuratzeaz". Emakumeak elkar ezagutzeko baliagarria izango dela erantsi zuen: "Emakumeak ikastaroetan izena ematera animatu nahi ditugu".

Lehen ikastaroak abiatzear dira

Pixelarte: Ikus-entzunezko ahalduzko tailerra
Otsailak 24. Urigain.
10:00-13:30/15:30-18:00.
Dinamizatzailea: Pixelatu.

Algodonerako emakumeak. Kaleko ekintza fotografikoa
Martxoak 2 eta 3. Urigain.
18:00tan martxoaren 2an eta 11:00tan martxoaren 3an.
Dinamizatzailea: Silvia Ayerra.

Batukada feminista ikastaroa
Martxoak 12; apirilak 9, 23; maiatzak 7, 21; ekainak 4.
19:00-20:30 Gazte Lokala.
Dinamizatzaileak: Arantza Vicedo eta Ainara Sarasketa.

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala
Martxoan hasita. Urigain.
Astean behin.
Jatorri anitzetako emakume etorkinei astero bildu eta bizipenak partekatze espazioa.
Dinamizatzailea: Beatriz Zalakain.

Ikastaroa: Hazkuntza eta hezkuntzaren ardura berdintasunaren aldeko bidean
Apirilak 10, 17, 24; maiatzak 2, 8, 15. Urigain.
17:30-19:00.
Dinamizatzailea: Ametsondoa Elkarte.

Ikastaroa: Teoria feminista
Apirilak 11, 18, 25; maiatzak 2, 9, 16, 23. Urigain.
18:00-20:00.
Dinamizatzailea: Emagin.

Tailerra: Emoziotegia. Bizirik gaude eta beraz sentitzen dugu!
Apirilak 17; maiatzak 8, 22; ekainak 12, 19. Urigain.
18:00-20:00.
Dinamizatzailea: Nerea Redondo

IKASTARO GEHIAGOREN INFORMAZIOA:
Andoaingo Udala Berdintasun Lansaila Urigain Eraikina, 1 bulegoa.
943 300 830. Luzapena: 397.
sbarrenetxea@andoain.eus
www.aiurri.eus

Aurrekontua onartzeko akordioa lortu dute

EH Bildu, Ganemos, Irabazi eta atxiki gabeko zinegotziak 2018rako aurrekontu proposamena onartzeko akordioa aurkeztu zuten asteartean. Ostegun honetako Udal batzaraldian onartzea espero da, botoen baturak gehiengo osoa ziurtatzen baitu



Alvaro Gonzalez, Olga Hernandez, Ana Carrere, Jorge Mourinho eta Jon Zulueta astearte arratsaldeko agerraldian. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Ana Carrere alkatea eta Jon Zulueta bozeramailea (EH Bildu), Olga Hernandez (Ganemos), Jorge Mourinho (Irabazi) eta Alvaro Gonzalez atxikitu gabeko zinegotzia izan ziren astearte arratsaldean akordioaren berri emateko prentsaren aurrean agertu zirenak.

22 milioi euro pasatxoko aurrekontua izango du aurten Udalak. Sailez sail, langilegoarena da handiena (8.528.401 euro), eta Gizarte Zerbitzuetara bidaraten da beste partida esanguratsua (1.874.279 euro). Kirola, aurtengoan, Udal barruko kontuen baitan txertatuko dute, Kirol Patronatua desegin egin baitute (1.230.635 euro). Beste zenbait partida: Enplegua, Sustapen Ekonomikoa eta Gazteria (1.617.572 euro), Kultura eta Hezkuntza: (1.305.427 euro), Hirigintza (1.223.753 euro), Ogasuna (693.450 euro), Euskara (412.440 euro) eta Berdintasuna (164.634 euro).

Akordioaren sinatzaileek, elkarren arteko sintonia ona, eta negoziatioetan denek ere egindako lana eta erakutsitako jorkabidea nabarmendu zuten.

Aurrekontuaren hainbat partida

- Arrate frontoiaren berritzea: 1.200.000 euro. Bi urtera finantzatuta.
- Dr. Huitzi kaleko haur parkea: 48.000 euro.
- Haur parkeak estaltzeko inbertsioa: 200.000 euro.
- Auzoz auzoko eskaeretan oinarrituta, zenbait obra: 552.000 euro.
- Argiteria puntu berriak: 120.000 euro.
- Udal etxebizitzaren erreforma: 100.000 euro.
- Irisgarritasuna; udaletxeko igogailua: 140.000 euro.
- Herribideak: 50.000 euro.
- Agenda21 prozesuko inbertsioak: 200.000 euro.
- Zabor organikoaren ontzi, poltsa eta txartelak: 20.000 euro.
- Azterketa eta egitasmo ezberdinak: 190.000 euro.

EAJk ez du aurrekontua babestuko

Azken urteetan EAJ-PNVk udal aurrekontuei baiezkoa eman eta gero, aurten ez dute Udal Gobernu proposamenarekin bat egingo. Horixe iragarri dute ohar bidez, 2018an akordio orokor bat itxi ahal izateko "gutxieneko baldintzarik bermatzen" ez dela argudiatuta. Azken Ogasun batzordean, jeltzaleek emendakin partzialen sorta aurkeztu zuten, ostegun honetako plenoan xehetuko dituztenak. "Lehentasunezko oinarritzko zerbitzuak sustatzea dugu helburu, Andoaingo garapena ahalbidetuko duten politikak proposatuz". Besteak beste, hauexek iragarri dituzten hobekuntzak: Argiztapenean, hondakinen bilketan, herri-bideetan, zuhaitzen ez-ohiko kimaketan, irisgarritasuna hobetzeko lanetan, eraginkortasun energetikoa hobetzeko lanetan, etab.



Igerategi eta Otaño igande iluntzean. AIURRI

Hedabide handieek jarraipen estua egin zioten ekitaldiari

Erredakzioa ANDOAIN

Iñaki Igerategi eta Inaxio Otaño igande goizean geratu ziren aske, sei urteko espetxe zigorra bete eta gero. Badajoz eta Lugoko espetxeetako atarietan senitar-tekoak eta adiskideak zain zituzten.

Andoain iluntzeko 19:30etarako iragarri zuten harrera ekitaldia, eta hitzorduak egundoko ikuskizuna eragin zuen. Ordu horretan, hirurehun andoaindarrez gain, makina bat kazetari zegoen Zumea kalean.

Ekitaldira bertaraturako denek besarkatu eta musukatu nahi zituzten bi preso ohiak. Bertan, jendetzak, aterkiek, argazki eta telebista kamerek uzten zuten tarte txikian bi dantzariak aurrerakua dantzatu zieten, eta ondoren lore sorta bana eskaini. Lehen harrera ekitaldi txiki hori eginda, berehala Zumea kalean gora abiatu ziren guztiak. Irunberri tabernan, preso bat askatzen duten aldiro egin ohi duten ekitaldia errepikatu zuten:

azken sei urtetan horman zintzilikatuta egon diren argazkiak kentzea, alegia.

Harrera ospatu zen tokitik gertu, Kaleberriko espaloian, PP alderdiko sei buruzagik elkarretaratzearekiko desadostasuna agertu zuen, Joseba Pagazaurtunduaren erretratu bana eskuetan zutelarik; ongietorria salatu nahi izan zuten era horretan. Harrera ekitaldiak, eta horren aurkako bilkurak, biek oihartzun zabala izan dute Euskal Herriko eta Espainiako komunikabideetan. Hizpide nagusietakoa izan da tertulia politiko ugarritan.

Ika-mika hedabideetan

Politikoentzat ere igandekoa eztabaidarako gai izan da. Batzuentzat preso ohien aldeko ongietorriak bizikidetzarako oztopo eta biktimentzat mingarri diren bitartean, besteentzat adierazpen askatasunaren baitan kokatu behar dira. Etxekoek eta lagunek agurtzeko modua, finean.

Andoaingo PSE-EEren gaitzespena

Astelehen goizean, Andoaingo PSE-EEK prentsa ohar bidez iragarri zuen gaitzespena eskatzeko mozioa aurkeztuko duela udaletxean. Ostegun honetako plenoan aztergai izango da, beraz. "Lotsa" eta "amorrúa" sentitu duela dio Mainer Lainez Andoaingo sozialisten idazkari orokorrak, igandeko harrera ekitaldia bi etakideri egindako omenaldiarekin parekatuz. Ohar berean, Ana Carrere Andoaingo alkateari kritika gogorra luzatu dio: "Onartezina da. Mespretxagarria iruditzen zaigu ekitaldi honen aurrean Carrerek izan duen isiltasuna. Iraingarria eta umiliagarria izan da talde terroristaren biktimen senideentzat eta, bereziki, Pagazaurtunduaren familiarentzat". Elkartasuna adierazi zien udaltzaingoaren familiari, eta baita gainerako biktima guztiei ere.



Podiuma: Eva Esnaola, Maialen Gurrutxaga, Andoni Oiartzabal, Juan Luis Gomez, Raul Gomez, Ibai Alba eta Ana Megias. AIURRI

Gomez eta Esnaola garaile


On Bosko lasterketaren laugarren edizioarekin batera, Ipar Martxaren lehen proba antolatu zuten. Batzuk eta besteak, 136 kirolari denera, gogotsu aritu ziren. Igande goizeko lasterketen antolaketa bikaina izan zen. Argazkiak: www.aiurri.eus

Xabier Lasa URNIETA
On Bosko lasterketaren laugarren edizioarekin batera, Ipar Martxaren lehen proba jokatu zen Urnietan, igande goizean. Parte hartzaile guztien argazkiak, aiurri.eus gunean ikus daitezke.

136 kirolari izan ziren guztira, eta ikuskizun polita eskaini zieten Salesiarren ikastetxean nahiz Urnietako kaleetan bildu ziren ikusleei. 7 kilometroko ibilbideari aurre egin ostean, Lasarte Raul Gomez izan zen ga-

raile gizonetzkoen lasterketan; Juan Luis Gomezi segundo bakarreko alde atera zion. Emakumeetan, berriz, Eva Esnaola izan zen bizkorrena; Maialen Gurrutxaga andoaindarrak hirugarren postua lortu zuen.

Sailkapenak



Eva Esnaola Agesta irabazlea. AIURRI

Lasterkariak:

- 1. Raul Gomez 23:44
- 2. Juan Luis Gomez 23:45
- 3. Ibai Alba 23:48
- 9. Jesus Mari Altuna 26:28
- 18. Raul Fradejas 28:20
- 25. Iban Estebez 29:09
- 26. Aitor Iturralde 29:26
- 30. Josu Arregi 29:56
- 41. Andoni Izagirre 31:47
- 46. Jonathan Lopez 33:19
- 47. Maialen Gurru. 32:07
- 48. Unai Arberas 33:31
- 49. Jose Luis Lopez 33:44
- 53. Enrique Miguel 34:43
- 54. Ander Guerrero 34:44
- 58. Almudena Ramos 25:23
- 59. Jon Mikel Korta 35:33
- 60. Begoña Cao 35:37
- 61. Javier Gallo 35:38
- 62. Eduardo Rodrig. 35:40
- 64. Almu Salas 35:47
- 67. Pilar Goenaga 41:38



Pilar Goenaga urnietarra. AIURRI

Ipar Martxa:

- 1. Agustin Urretabiz. 33:39
- 2. Gorka Aulestia 34:29
- 3. Pepelu Medina 34:42
- 6. Alberto Arenales 36:07
- 18. Xabier Medina 39:02
- 30. Mehrdad Ebadi 41:37
- 38. Iciar Balda 43:45
- 40. Ramon Bengoe. 43:53


Iturria: herrikrosa.eus




Alberto Arenales urnietarra. AIURRI



Sprintean erabaki zen lasterketa. AIURRI



Jesus Mari Altuna Usarralde. AIURRI



Raul Fradejas Hernandez. AIURRI



Aurtengo podiuma: Aulestia, Astigarraga, Villalba, Urretabizkaia, Medina, Rojo. AIURRI



Larunbat goizean atera zituzten taldeko argazkiak, Goikoplazan. Hainbat protagonisten adierazpenak bideoan bilduta daude, aiurri.eus webgunean. AIURRI

Zaindu behar den harrobia

Denboraldi berria hastear dagoela, Andoaingo Txirrindulari Eskolak taldeko argazkiak egin zituen Goikoplazan. Kadete mailakoek Ibaetan ekingo diote denboraldiari, asteburu honetan. Alebin eta infantil mailakoek, hurrengo asteburuan Andoainen

Amaia Senperena ANDOAIN
Hogeita hamabosgarren denboraldiari ekingo diote, aurten. Andoaingo Txirrindulari Eskolaren aurkezpen txartelak ondoko adierazten baitu: "1984ko irailaren 12an sortu zen txirrin-

dulari zale eta guraso talde baten eskutik, Arrate frontoian egingadako bilera baten ondoren". Geroztik, harrobia lantzen duen kirol talde eredugarria da Andoaingoa. Dozenaka haur eta gazte igaro da bertatik, eta trans-

misiolari garrantzia handia ematen diote. Aurten, esaterako, Manterola eta Velasco gazteak entrenatzaile-laguntzaile paperean arituko dira. Bi kide horien eta gehiagoren adierazpenak bidez ikus daitezke aiurri.eus gunean.

Andoaingo Txirrindulari Eskola

Eskolartekoak:

Lizar Zuriarrain, Eñaut Barriola, Xanet Manterola, Eneko Ugartemendia, Eneko Tena, Ander Arruabarrena. Argazkian falta da: Haritz Georg. Entrenatzaileak: Aitzol Zuriarrain, Josu Iraola, Pedro de Godos, Jose Sanchez.

Alebinak:

Izaro Etxarri, Ixiar Alkain, Igor Bereziartua, Xuhar Etxezarreta, Oskitz Sagredo, Aner Miner, Imanol Lertxundi, Oihan Amilibia. Argazkian falta da: Oihan Azkonobieta. Entrenatzaileak: Jon Mikel Mujika, Jose Luis Barberena.

Infantilak:

David Pacheco, Ibai Vela, Iker Atxaga, Iker Balbas, Izaro Zuriarrain, Markel Etxarri, Ganix Ormazabal, Iker Ugartemendia, Igoien Pikabea. Entrenatzaileak: Peio Manterola, Aitzol Zuriarrain, Iñaki Arin.

Kadeteak:

Peru Alkain, Ekain Mitxelena, Mikel Goikoetxea, Iker Atxaga, Ibai Omeñaka, Jokin Jauregi, Unai Galarza. Entrenatzaileak: Jon Goikoetxea, Peio Manterola, Koldo Velasco, Iñaki Arin.




PEIO MANTEROLA
ENTRENATZAILE BERRIA

"Ikasle mailatik hasi eta afizionatu mailara bitarte talde bateko kide sentitzea garrantzitsua dela deritzot".



MIKEL GOIKOETXEA
KADETE MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Neguan prestaketa saio ugari egin ditugu eta espero dugu prestaketa hori guztia errepidean nabaritzea".



IBAI OMEÑAKA
KADETE MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Infantil mailatik kadetera jauzi handia dago. Lasterketak hasita, bakoitzak bere maila hobetzeko helburuak ipiniko ditu".



IZARO ZURIARRAIN
INFANTIL MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Kirola egiteko izena eman nuen taldean. Eskatzen hasita, nahiko nuke gure taldera neska gehiago animatzea".



IZARO ETXARRI
ALEBIN MAILAKO TXIRRINDULARIA

"Iaz, denboraldi amaieran kopa jokatu genuen. Aurten, kopa gehiago jokatuko ditugunez, denboraldia hasteko gogoz nago".

Euskaldunak lehen postuetan egon nahi du

FUTBOLA Ubitarte zelaian Urnieta 2-1 garaitu zuen, eta horri esker sailkapenaren hirugarren postuari eusten dio. Trabatua izan zen partida, Euskaldunak 9 jokalarirekin amaitu baitzuen. Berdinketa emango liokeen penaltia huts egin zuen Urnietak

Erredakzioa ANDOAIN

Euskalduna 1-0 aurretik zela amaitu zen lehen zatia, Joanes Iturratek sartu zuen golari esker. Bigarren zatian, Ruben Piron izan zen Euskaldunaren bigarren golaren egilea. Gauzak horrela, Urnieta erabat arriskatzan hasi eta laster jaso zuen saria, markagailuan 2-1eko jarritz; egiari zor, Euskaldunako Xuban Zabalozan zen baloia ukitu zuen azken jokalaria.

Azken minutuetan Euskaldunak bederatzi jokalariekin jokatu behar izan zuen, epaileak Dani Sanchez eta Iñigo Arruabarrena kaleratu baitzituen. Urnietak ez zuen aukera probestu, penalti bat huts eginez.

Euskalduna hirugarren da sailkapenean, 38 punturekin, eta ilusioz beterik dabil lehen bi postuei begira. Hurrengo jardunaldian EAS-08 taldearen aurka jokatu beharko du, Donostian. Sailkapenean berdinduta daude bi taldeak, eta beraz, oso neurrak lehiatua espero da. Urnietak, ostera, 23 punturekin segitzen du, jaitsiera postuetatik bost puntura. Mundarorekin neurtuko ditu indarrak etxean, asteburu honetan. Aukera polita sailkapenean gora egin eta, bide batez, aurkari zuzenetako bat atzean uzteko.



Jokalaria azkarrak eta biziak ditu Euskalduna taldeak. AIURRI



Baloia jabetza lortzeko lehia futbol zelai osora zabaldu zen. AIURRI



NIRE USTEZ

BEÑAT LIZASO URNIETA

Boom!

Bat batean errealitate kolpea denentzat, egunerokoa besteentzat. Gaueko bederatziak eta hogeita hamazazpi minutu. Lagunekin sagardotegi batean ginen berria jaso genuenean: Idiazabal eta Elgoibarko gazteek futbol epaileak zelaian euskaraz hitz bat entzun orduko kaleratuko zituenaren mehatxupean hasi zuten partida. Hedabide zein jende askok epailearen jatorriari egundoko garrantzia eman dio. Bada derrepentean euskaltzale amorratu bihurtu denik ere, epaile andaluziar batek espainola berdegunean inposatu zuelako. Ni ere futbol epailea naiz. Eta gurean, futbola (gizartea, orokorrean), guztiz intoxikatua dago. Nik ez diet jokalariei gaztelera inposatu behar. Beraiek dira, zuzenean, inork ezer esan gabe, espainolez mintzo direnak. Orain dela hilabete Lazkao-Idiazabal partida epaitu nuen. Jokalariek haien artean euskaraz egiten zuten arren, niri zuzentzeko garaian espainola zerabilten. Nik euskaraz erantzun, eta harridura eta lasaitasunaren arteko aurpegi konplizez begiratzen ninduten. Arazoa non dago? Andaluzian, Madrilan? Edo etxean? Zuek esan.

KARTELDEGIA: SASKIBALOA, ARETO FUTBOLA

SASKIBALOA

SENIOR MAILA

EMAITZA

AlB-Ganbara **59-43**

SAILKAPENA

1	Zarautz	32 puntu
2	STL Azkune	31 puntu
8	Alde-Zaharra B	25 puntu
9	Ganbara	24 puntu
10	Larramendi	23 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

19:15 Ganbara-Larramendi / Lar, 24

KADETE MAILA

EMAITZA

Ganbara-Mondragon C **80-43**

SAILKAPENA

1	Ganbara	26 puntu
2	Goierrri	26 puntu
3	Aloña Mendi	25 puntu
4	Andraitz	23 puntu

ARETO FUTBOLA

SENIOR MAILA

EMAITZA

Euskalduna-Legorreta **6-1**

SAILKAPENA

1	Hirukide	37 puntu
4	Tolargi	30 puntu
5	Euskalduna	28 puntu
6	Oiartzun	26 puntu

ASTEBURUKO PARTIDA

11:15 Orio-Euskalduna / Ig, 25

ANDOAINGO TXAPELKETA

EMAITZAK

Ganbara-Dad Kutxa	3-7
Keler-Ekhia	3-3
H. Extremeño-Academia GF	3-4
Ekaitz-Lanbroa	1-7
Powerade-Gorostidi	1-10
C. Extremeño-Akerbeltz	2-3
Txalaka-Academia London	4-4
Olajauna-Pausoka	1-2



"400 jokalaria inguru daude UKEn, mantendu beharreko altxorra da hori"



Datorren Aiurri astekarian: Joseba Lizaso, UKeko lehendakaria

UKE eskubaloia-aren asteburu borobila

ESKUBALOIA Klubak jokalaria guztiak zoriondu ditu, eta ez da gutxigorako. Zortzi partidatetik zazpi irabazi baitzituzten, eta zortzigarrena berdindu. Bereziki garrantzitsuak izan ziren senior mailako bi garaipenak

Erredakzioa URNIETA

Senior mailakoek lidergotzan dagoen Pulpo taldea hartu zuten etxean, eta astindu ederra eman zieten (27-18). Gol alde hori garrantzia handikoa da, azken sailkapenari begira *averagea* alde izango dutelako.

Senior nesken garaipena ere garrantzia handikoa izan da, Legazpiren aurka lortutakoa (19-10). Liga lehen hiru postuetan sailkatzea helburu zuten, eta lortu dute. Igoera fasean egongo dira, beraz.

Infantil mailako neskek Al-undia txapelketa bikain hasi dute, Ordiziari irabaziz (15-24).



Senior mailako neskek igoera fasean arituko dira. UKE

Ligaxka lehen postuan

SASKIBALOIA Kadete mailakoak azken hilabeteotan partaidetzako ligaxka jokatzen aritu dira. Azken jardunaldia, hamalagarrena, jokatu eta gero, ligan lehen postuan amaitu dute. Hamalau partidatetik hamabi irabazi dituzte, eta bi bakarrik galdu. Saskiratzeetan aldeko 878 puntu lortu dituzte, eta aurkako 461.



GANBARA

Trebaketa saio berezia

IGERIKETA Gipuzkoako Igeriketa Federazioak Eneko Elizasu eta Nora Imaz Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak deitu zituen, joan zen larunbatean kontzentrazio berezia egiteko. Paco Yoldi igerilekuan bi orduko trebaketa saioa egin zuten. Albiste ona eskualdeko igeriketa taldearentzat, harrobiarekin lana ondo egiten ari diren seinale.



BURUNTZALDEA IKT

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

PREFERENTE MAILA

EMAITZA	
Euskalduna-Urnieta	2-1

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:00	EAS 08-Euskalduna / Ig, 25
18:00	Urnieta-Mundarro / Lar, 24

ERREGIONAL MAILA, MUTILAK

EMAITZA

Euskalduna-Landetxa	5-1
---------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:30	Sporting-Euskalduna / Lar, 24
-------	-------------------------------

IGOERA FASEA, NESKAK

EMAITZA

Touring-Urnieta	0-4
-----------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Bergara-Urnieta / Lar, 24
-------	---------------------------

KOPA, NESKAK

EMAITZA

Lizeoa-Euskalduna	5-1
-------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

15:40	Euskalduna-Danena / Lar,
-------	--------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

EMAITZAK, IGOERAKO LIGAXKA

Urnieta A-Aloña Mendi	6-1
Zestoa-Euskalduna A	1-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:45	Euskalduna A-Urnieta A / Lar, 24
-------	----------------------------------

EMAITZAK, KOPA

Urnieta B-Lazkao	3-1
Goierri-Euskalduna B	1-6

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:30	Idiazabal-Urnieta B / Lar, 24
19:30	Euskalduna B-Billabona / Lar, 24

KADETE MAILA, MUTILAK

EMAITZA, OHOREZKO MAILA

Billabona-Euskalduna	0-4
----------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

11:00	Euskalduna-Luberri / Lar, 24
-------	------------------------------

EMAITZAK, KOPA

Añorga-Urnieta	4-1
Euskalduna-Tolosa	2-1

ASTEBURUKO PARTIDAK 4-7MUL.

10:30	Urnieta-Vasconia B / Lar, 24
15:30	Billabona-Euskalduna / Lar, 24

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Oiartzun-Urnieta	4-2
------------------	-----

ASTEBURUKO PARTIDA

16:00	Urnieta-Zestoa / Lar, 24
-------	--------------------------

ESKUBALOIA

SENIOR MAILA, MUTILAK

EMAITZAK	
Leizaran-Tolosa B	26-30
Urnieta-Pulpo	27-18

ASTEBURUKO PARTIDAK

13:00	Aritzatalde-Leizaran / Lar, 24
16:15	Urola-Urnieta / Lar, 24

SENIOR MAILA, NESKAK

EMAITZAK

Urnieta-Legazpi	19-10
Irauli Bosteko-Leizaran	22-18

ASTEBURUKO PARTIDAK

11:30	Ordizia-Urnieta / Ig, 25
-------	--------------------------

JUBENIL MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK

Elgoibar-Leizaran	23-22
Hettich ZKE-Urnieta	25-30

ASTEBURUKO PARTIDAK

10:15	Urnieta-Ordizia / Ig, 25
10:30	Leizaran-Irun / Ig, 25

JUBENIL MAILA, NESKAK

GIPUZKOAKO TROFEOA

EMAITZAK

Untzilla-Urnieta	26-26
Leizaran-Tolosa	31-18

ASTEBURUKO PARTIDAK 1-2 MU.

12:00	Urnieta-Egia / Ig, 25
17:30	Ordizia-Leizaran / Lar, 24

KADETE MAILA, MUTILAK

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

EMAITZA

Leizaran Horia-Egia 3	22-29
-----------------------	-------

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK

Leizaran-Komat Eibar	30-26
----------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

17:15	Amenabar C-Leizaran / Lar, 24
-------	-------------------------------

KADETE MAILA, NESKAK

EMAITZA

Aloña Mendi B-Leizaran Horia	35-15
------------------------------	-------

ASTEBURUKO PARTIDA

13:00	Leizaran Horia-Bergara / Lar, 24
-------	----------------------------------

FORU ALDUNDIKO TORNEOA

EMAITZAK

Usurbil A-Leizaran Urdina	19-20
Ordizia-Urnieta	19-26

ASTEBURUKO PARTIDAK

09:15	Irun A-Leizaran Urdina / Lar, 24
17:45	Urnieta-Usurbil A / Lar, 24

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 22

ANDOAIN PlenoaUdalaren osoko ohiko batzaraldia.
Udaletxea, 19:00.**ANDOAIN Lehiaketa**Inauterietako argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Sari bakarra, 250 eurokoa. Oinarriak: aiurri.eus.
Bastero.**ANDOAIN Arretarako bulegoa**Frankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.
Bastero, 17:00-19:30.

OSTIRALA 23

ANDOAIN Arretarako bulegoaFrankismoko biktimen arretarako bulegoa zabalik.
Bastero, 10:30-13:00.**ANDOAIN Irteera**Villabonako Gazte lokalera irteera.
Gazte Lokala, 17:00.**ANDOAIN Eskulan tailerra**Haurrei eta gurasoei zuzendutakoa, Bidaide euskararen erabilera trebatzeko ekimenaren eskutik.
Ludoteka, 17:30.

LARUNBATA 24

ANDOAIN Piano JaialdiaUdalak Deiyadar taldearekin batera antolatutako jaialdia.
Bastero. Egun osoan.

FRANCOIS OLIVIER CHABOT

ANDOAIN Luz Ardidenen raketa ibilaldia, Euskalduna taldearekinEuskalduna mendigoizale taldeak ibilaldia antolatu du martxoaren 3rako, 15,5 kilometrokoa eta 5 ordu pasatxoko iraupenekoa. Busa 05:15etan abiatuko da Andoaindik. Bazkideentzat prezioa 19 eurokoa da. Bazkide ez direnentzat, 21.
Izen ematea: 943 59 22 32. euskaldunam@yahoo.es. Kale nagusia, 31.**ANDOAIN Bideo tailerra**'Pausoz pauso' kalejira iragartzeko bideo tailerra. Pixelarteren eskutik.
Urigain. 10:00-10:30/15:30-18:00.**DONOSTIA Manifestazioa**Erraustegiaren aurkako deialdia.
Gipuzkoa plaza, 17:30.

IGANDEA 25

URNIETA AntzerkiaLinbo planeta, adin guztientzat.
Sarobe, 17:30. 3 euro.**ANDOAIN Piano Jaialdia**Udalak Deiyadar taldearekin batera antolatutako piano jaialdia.
Bastero. Egun osoan.

OSTIRALA 2

ANDOAIN TailerraJabekuntza eskolaren baitan, Sylvia Ayerraren eskutik, kaleko argazki jarduera egingo da. Algodonerako emakumeen ekarpena nabarmendu nahi da.
Urigain. 18:00.

Musika emanaldi berezia Urnietan



Lourdes Iriondo Musika Eskolan ikasturtea berritzailea izaten ari da. Santa Zezilia egunean musika instrumentuak kalera atera eta kalejira ederra eskaini zuten. Oraingo honetan, ekimen berezi berriarekin datoz. Musika eskolako eraikinaren kanpoko paretak eta zutabeak eta gela barruko ateak margotu egin dituzte. Era berean, bolatoki ondoko sarbidea eraberritu, eta barandak ipini dituzte. Aurrerantzean, horixe izango da musika eskolarako sarbidea.

Ospakizuna

Hainbat berrikuntza bere horretan utzi beharrean, ekitaldi berezia antolatu dute datorren astelehenerako (otsailak 26). Arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta musika eskolako ikasleak ez dira bakarrik egongo. Izan ere, Bosko Anitz txaranga, Txanbolin txistulari banda eta musika eskolako ikasle ohi batzuk ere parte hartzeak dira. Xabier Leteren bi abesti joko dituztela iragarri dute: Kontrapas eta Habanera. Ekitaldia irekia da.

Batukada feminista Andoainean

Jabekuntza eskolaren eskaintza da; martxoaren 5a bitarte izena emateko aukera dago. Eskuorriak zera dio: "Musikara gerturatu eta ondo pasatzeaz gain, beste emakume batzuekin batera talde-lanean aritzeko, sormena landu eta autoestimua igotzeko. Emakumeok kalera irten eta espazioak okupatu bitartean jendeari gozarazteko".

Datak:

Martxoak 12; apirilak 9 eta 23, maiatzak 7 eta 21; ekainak 4.

Ordutegia:

19:00-20:30.

Tokia:

Gazte Lokala.

Izen-ematea:

Dohainik. Berdintasun Arloa. 943 300 830 ext 397. sbarrenetxea@andoain.eus

Egunean eguneko albisteak sarean



Txirrindularien denboraldi berria



Piano Jaialdiaren aurkezpena



Euskara egitasmoa Urnietan

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Enaitz Unanue
Zorionak Enaitz!
Otsailaren 27an 2 urte beteko dituzu eta ospatzeko gogoz gaude. Segi orain arte bezain bixkor eta irrifartsu! Zure etxeak



ANDOAIN / AIA
Unax Lopetegi Zatarain
Unaxek 12 urte bete zituen pasa zen hilaren 15ean. Muxu handiak etxekeoen partetik, anaia Aner eta lehengusu Oinatzen partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean. Ez dadila tamaina handiko argazkia izan. Tamaina editatzerik ezean, erabili ezazu posta elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus

Mezua bidali Aiurriko posta elektronikora, nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea

Etor zaitetz bulegora, Andoainera. Telefono zenbakia: 943 300 732.

Whatsapp bidez: 619 16 35 37

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 24 eta igandea 25
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 590 802. Andoain.

URNIETA

Larunbata 24 eta igandea 25
ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.
943 336 022. Hernani.
Gauetz, bi herrietan: Castilla.
943 552 941. Hernani.



Astezkenean abiatu zen ekimena, astezkenero errepikatuko dena. AIURRI

Ibili Andoain egitasmoa

Egundoko arrakasta izan zuen "Ibili Andoain" egitasmoak, bere lehen irteeran. Astezkenero goizean Goikoplazatik bi talde abiatu ziren, batzuk herrigunean barrena ibiltzeko eta besteak Urnieta aldera joan etorria egiteko. Amaieran, hamaiketakoaz gozatu zuten Ambrosia Olabide eraikineko kafetegian. Astezkenero adinekoek ariketa fisikoarekin hitzordua dute.



Hogeita hamar lagun bildu zen astelehen eguerdian, Kontzejupean. AIURRI

Astelehenero Goikoplazan

Euskal Herriko pentsiodunak Espainiako Gobernuaren pentsio politikarekin haserre bizi daude. Ikustea besterik ez dago Bilbon egin dituzten milakako lagunengandik. Mobilizazioak herrietara eramane dituzte eta Andoainen ere astelehenero Goikoplazan hitzordua dute. Propagandarik egin gabe, hogeita hamar lagun hurbildu ziren ahoz aho zabaltzeko deian.



AZKEN HITZA

OLATZ LASA
ERREDAKZIOTIK

#Inauteriak18

Barita eskuetan eta printzesaren mozarroa soinean. Horrelaxe etorri nintzen lehen aldiz Andoaingo Inauterietara orain dela urtetxo batzuk. Aurtengoan, berriz, kamerarekin eta kazetari paperean etorri naiz karrozen desfilera.

Herrietan ospatzen diren jaien jarraipena egitea dut gustuko argazki zein bideoak eginez, eta Inauteriak ere gisa horretako festak dira. Behar baino lehenago iritsi nintzen karrozen desfilera, apur bat kokatu eta giroan sartzeko. Karrozak iristen ari ziren heinean taldeko argazkiak ateratzen joan nintzen: posatu, 1, 2, 3 eta klisk.

Desfilea martxan hasi zenean atzera eta aurrera ibili nintzen momentu hoberenak ehizatzeke. Eta esan beharra dut parte-hartzaileen nahiz ikusleen jarrera ezinhoba izan zela nire jardunaren aurrean; sarritan, ez baita erraza izaten horrenbeste jende biltzen den ekitaldietan inor molestatu gabe lan egitea.

Bulegora joan, albistea idatzi, argazkiak aukeratu eta bideoa egin ondoren, hurrengo pausoa sareetan zabaltzea izan zen #Inauteriak18 hastag-a erabilita. Segundu gutxira herritarrek mugikorretan ikusi zuten albistea, eta hor ikusten da zein ederra den zure lana denen eskura uztea.

AZKENA

Antzezlana Saroben igande arratsaldean

Dejabu panpin laborategiak "Linbo Planeta" familia ikuskizuna eskainiko du igande honetan, Sarobe antzokian. Bereziki sei eta hamar urte bitarteko haurrei zuzendua dagoen arren, familia guztiarentzako ikuskizun interesgarria da.



Numa eta Linbo, Miren Alkala eta Alvaro Garayalde. DEJABU

Erredakzioa URNIETA

Dejabu konpainia kalitatearen bermea da, egiten dituzten sormen lan guztiak arrakastaren bidetik joan baitira. Haurrentzat "Azken portua" eta "Idazlea zeu zara" antzezlana ekoiztu dituzte, oraindik ere han eta hemen eskaintzen ari direnak. Helduentzat, berriz, "Gure bide galduak" antzezlana ezaguna egin zuten, eta beste kolektibo batzuekin batera beste zenbait obra ezagunetan parte hartu dute: "Arrastoak", "Hamlet" edota "Errautsak". Bistan da Oarsoaldeko konpainia ibilbide oparoa osatzen ari dela. "Linbo planeta" antzezlanean, Miren Alkala eta Alvaro Garayalde izango dira aktoreak. Taularen atzealdean kokatu dira Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo Dejabuko aurpegi eza-gunenak. Aktore lanak alde batera utzita, lehena zuzendari arituko da eta bigarrena eszenografiaren arduratuko da.

GALDU EZIN DAITEKEEN HITZORDUA URNIETAN, KALITATE HANDIKO HAUR IKUSKIZUNA

Numa neskatila eta Linbo txakurra

Inork oroitzen ez duen leku bat. Hondarrez, zaborrez eta behin etxe izan zirenen hondakinez inguratutako leku urrun bat. Gerrak atzean utzitako hondamendia agian? Errefuxiatu kanpamentu abandonatu bat akaso? Edo nork daki, galaxia honetako beste planeta bat behar bada.

Gizaki bakarra bizi da bertan, zortzi urteko neskatila bat: Numa. Bakarrik bizitzera ohitua, hondamendiaren erdian bere bizilekua sortzea lortu du eta tarteka jasaten dituen erasoei bizirauten ere ikasi du. Aspaldian aspertzen hasia da ordea, faltan botatzen baititu lagunak, familia eta ia oroitzen ez duen bere herria.

Goiz batean, sekula jolasteaz aspertuko ez den lagun bat azaldu zaio, Linbo txakurra. Eta elkarrekin inoiz susmatuko ez luketen bidaia batean murgilduko dira, irudimenaren indarrari esker bakarrik egin daitekeen bidaian.

Numak etxera itzultzeko bideari ekingo dio, bere arbasoek, desertuko nomadek, aspaldi egin zuten moduan. Izarrei jarraika.



linbo PLANETA

Otsailak 25
17:30
Sarobe

HAURRENTZAKO ANTZEZLANA
Dejabu Panpin Laborategia

3€, 6 urtetik gorakoentzat